

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11

647. zenbakia

GIZARTEA/ Familia edo eskola nekez heltzen diren esparrutara heltzea eta gazteen beharrak detektatzea da helburuetako bat

'Kaleko hezitzaileak' abian jarri du Udalak, 11-17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta

EDU MENDIBIL

Udaleko Ongizate Zerbitzuak 11-17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako *Kaleko hezitzaileak* programa jarri du abian. Debagoiengan esperientzia aitzindaria da Bergaran martxan jarritakoa. Familia edo eskola nekez heltzen diren esparrutara heltzea da programaren helburuetako bat.

Kaleko hezitzaileak edo Inguru-ne Irekiko Programa izenarekin ezagutzen da esperientzia hau. Esan bezala, Debagoiengan martxan jarri dute lehen aldiz, Bergaran. Gipuzkoan, berriz, 15 bat herritan garatzen ari da, tartean Eibarren, Zarautzen, Irunen edo Donostiako hainbat auzotan.

Helburu nagusietako bat zera da: familia edo eskola nekez heltzen diren esparrutara heltzea. Gazteen beharrak detektatzea eta kultur edo kirol jardueratan euren inplikazioa lortu nahi dute programaren bultzatzaileek.

Jon Lopez Ongizate Zerbitzuko teknikariak zera adierazi digu: "Nerabeek aisialdian egiten dutena aztertu nahi dugu, beraiengana hurbildu, euren errealitatea ezagutzeko, aisialdi alternatibak bultzatzeko eta beharrezkoa denean prebentzio lana egiteko ere bai".

BI HEZITZAILE LANEAN

Donostiako Kalexka elkarteak arduratuko da programa aurrera eramateaz. Gorka Manjon eta



Kalexka elkarteko Nerea Orena (ezkerrean) eta Gorka Manjon (eskuman) ari dira bergarar gazteekin lanean.

Nerea Orena ari dira 11-17 urte bitarteko nerabeekin lanean. Gizarte Hezitzaile tituludunak dira biak eta aste barruan izango dira Bergaran. Batez ere arratsalde partean arituko dira gazteekin. Zenbait asteburutan ere etorriko dira eurekin elkartzera.

Esan bezala, kaleko hezitzaile lanak egingo dituzte Nerea Ore-

Kalea heziketa leku bilakatu nahi dute, gazte eta nerabeen arazoak entzun eta jasoz

nak eta Gorka Manjonek. Era berean, arreta berezia jarriko dute arazo espezifikoak detektatu eta horien jarraipena egiterakoan: eskolan egokitu ezina, eskola porrota, gizarteratzeko prozesu ez-egokiak, kontsumoak...

Kalea heziketa leku bilakatu nahi dute, gazte eta nerabeen arazoak entzun eta jasoz. Gatazka eta

zailtasun konkretuei konponbide emateko bitartekari lanak egingo dituzte. Hain zuzen ere, nerabeekin lanean eskumena duten beste erakunde, entitate eta instituzioekin lankidetzan bultzatzea da helburuetako bat. *Kaleko hezitzaileak* programa, momentuz, datozen hiru urteotan eramango dute aurrera Bergaran.



TELEFONO ZENBAKI BERRIA DUGU BERRIGARAN:

943 25 05 02



Seminarioko patioaren azpian parkinga egingo du Udalak.

HIRIGINTZA/ Udalak 741.000 euro ordainduko dizkio dio Ekonomia Ministerioari

Seminarioko patioa erosi du Udalak, parkinga egiteko

E.M.

Bergarako Udalak Seminarioko patioa erosi dio Ekonomia eta Ogasun Ministerioari. Asteleheneko udalbatzan onartutakoaren arabera, Udalak 741.000 euro ordainduko ditu. Patioaren azpian parkinga egingo du Udalak.

EAJ-EA, Aralar eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen erosketa (PP eta IU ez ziren joan).

Udalak, esan bezala, 741.000 euro ordaindu beharko dizkio Ekonomia eta Ogasun Ministerioari. Hasieran, Udalak patioa (4.822 m²-koa) 235.456 eurotan erostea nahi zuen. Hala ere, Ministerioari ez zitzaion nahikoa iruditu. Horrela, 235.456 euro dirutan eta gainerakoa patrimonioan ordaintzea adostu zuten. Beraz, 505.543 eurotan baloratutako 24 garaje emango dizkio Udalak Ministerioari. Hain zuzen ere, patioaren azpian parkinga egite-

ko asmoa dauka Udalak. Oraindik ez dago jakiterik eraikiko duten parking hori nolakoa izango den. Edozein modutan, lehen solairuko 24 garaje Ministerioarenak izango dira.

ERAIKINA ESKURATZEKO ZAIN

Seminarioko eraikina Estatutua da. Badirudi Ministerioak UNEDeko patronatuaren esku utziko duela eraikina laster. Udalak, Kutxa, Diputazioa eta UNEDek osatzen dute patronatua.



San Antonioko biribila egiteko bi platano zuhaitz bota dituzte

San Antonion biribila egiteko lanak hasi ziren aurreko astean. Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailak dihardu horretan, San Antonioko babes ofizialeko etxebizitzaren urbanizazio lanen barruan. Bota dituzten platano zuhaitzek zeresana eman dute. Ikuspen eta segurtasun neurriengatik bota dituztela eta haien ordez haritza jartzeko asmoa dutela adierazi dute.

Enpresatan euskararen erabilera bultzatzeko urratsak

E.M.

Herriko enpresatan euskararen erabilera bultzatzeko lanean dihardu Udalak. Ate irekien jardunaldia egin zuten aurrekoan Geysler-Gastech lantegian. Besteak beste, Iñigo Iñurrategi Euskara batzordeburua, Udaleko euskara teknikariak, ELA, LAB eta ESK sindikatueta ordezkariek eta hainbat lantegitako ordezkariek hartu zuten parte. Hiru orduz jardun zuten euskara planaren gainean.

LANAREN JARRAIPENA

Batzorde honen egiteko nagusia zera izango da: lan munduan euskara bultzatzeko ekintzak pro-

posatu eta jarraipena egitea.

Koldo Guridi Geysereko Pertsonaleko buruak eta Euskara Planaren koordinatzaileak zera adierazi zuten: "Horrelako plan bat aurrera eramateko kanpoko laguntza behar-beharrezkoa da. Pausoak poliki-poliki ematen badira ere, lorpenak begi-bista-koak dira. Epe ertainean horrelako plan bat martxan jartzea inbertsioa da, enpresarentzat onuragarria". Euskararen erabilera %25ekoa da Geyseren.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) 2003an onartu zuen Udalak, 2003-2007 bitartean begira. 14 esparru jasotzen dira lantzeko eta esparru horietako bat enpresa munduarena da.



Enpresa, Udala eta sindikatueta ordezkariek elkartu ziren Geysler-Gastechen.

LABUR

1979an jaio eta Mariaren Lagundian elkarrekin ikasitako afaria hilaren 20an

1979an jaio eta Mariaren Lagundian D ereduan ikasitakoek afaria egingo dute hurrengo zapatuan, hilaren 20an.

Sirimiri jatetxean egingo dute afaria. Interesatuak Kutxan irekitako kontuan (2101 0070 85 01251 73039) 20 euro ordaindu behar dituzte.

Genero indarkeriaren aurkako legea aztergai martitzenean, Maria Antonia Caroren eskutik

Zutik taldeak antolatuta, genero indarkeriaren aurkako legearen gaineko hitzaldia egingo du Maria Antonia Carok martitzenean, kultura etxean. Aipatutako legea landu zuen batzordean parte hartu zuen Carok eta, horrez gain, Andaluziako Acción Alternatibako kidea da. Hitzaldia 19:30ean izango da eta Zutikek herritarrei parte hartzeko gonbidapena luzatzen die.

'Diario de hoy' film laburra grabatuko dute zapatuan Bergaran eta jendea behar dute

Oihan Vega bergararra *Diario de hoy* film laburra grabatzen ari da. Bihar, zapatua, Usondoko parkean hainbat eszena grabatuko dituzte eta jendea behar dute. Eguraldia ona bada, jendea 10:00etan joateko eskatzen zaio.

Oihan Vegak filmatzen duen bigarren film laburra da *Diario de hoy*. Aurretik *Long play* lana egin zuen. Oihana Maritorea, Carlos Engema eta Aitor Gabilondo dira protagonista nagusiak.


KIROLA/ 2006ko ekainerako amaituko dute barruko igerileku berria

Igerilekuko eraikin nagusiko lanak, epeen barruan

E.M.

Antzibar SL enpresako iturriek adierazitakoaren arabera, Agorroingo igerilekuko lanak martxa onean doaz eta agindutako epeak betetzen ari dira. Hain zuzen ere, barruko igerileku berria erabiltzeko moduan izango da 2006ko ekainean.

Antzibar enpresako langileak 2004ko iraila ezker ari dira kirolgune berriko proiektuan lanean. Barruko igerilekuaren eraikinean dihardute lanean azken hilabeteotan. Aste honetan bertan axuleiuk ekarri dituzte. Gris argia eta *beix* (lurrean) izango dira kolore nagusiak. Igerilekuek, bainu-tokiek izango duena erabakitzeko dago oraindik. Berritasunetako bat zera izango da: igerilekuak altzairu herdoiltzaitzekoak izango dira, PVC lamina batez estalita.



E.M.

Eraikin nagusia udarako amaituta izango da.

Eraikin nagusia bi igerileku izango dira, horietako bat haurrei zuzenduta

egingo dituzte eraikin nagusian. Azken fase baten kanpoko igerilekua egingo da. Jolas igeritokiak estalkia izango du neguan. Udaleko Hiringintza batzordeak emandako datuen arabera, 2006ko ekaina arteko lanen aurrekontua 7,1 milio euro da. Diputazioak 2,1 euroko dirulaguntza eman du 2007 bitartean.

LABUR

1964an, 1953an, 1939an eta 1929an jaiotakoek urteko ospakizuna egingo dute hilaren 19an

1964an jaiotako bergararren afaria izango da azaroaren 19an, Torrekua jatetxean. Izenematea San Martin plazako kioskoan; 1953koek ere egingo dute afaria egun berean Torrekuan. Izenematea (15 euro aurreratuz) Torrekuan edo Kiñun; 1939koek bazkaria egingo dute hilaren 19an, Pertxan. Izenematea: 943 76 24 79 (Eulali) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano). 1929an jaiotakoek (1950eko kintoek) bazkaria izango dute Azpeitxi jatetxean, 14:30ean. Izenematea: 943 76 19 22 (Jose Luis Kapanaga) edo 943 76 13 75 (Donato Aperribai).

Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko kartel lehiaketa deitu du BEKEk

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak (BEKE) emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko kartel lehiaketa deitu du. Partaideek azaroaren 18ra arte izango dute lanak entregatzeko aukera. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du. Kartelak kolore eta teknika librez egin ahal izango dira. Derrigorrezko testua azaldu behar da aurkeztutako lanetan: *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!*. Argibideak 943 76 07 95 telefono zenbakian.

1980an jaiotako bazkaria azaroaren 26an eta 1987koen bazkaria abenduaren 24an

1980an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 26an Agirrebeña jatetxean. Izenematea (25 euro) Euskadiko Kutzako 0090075779 kontuan egin daiteke, hilaren 22a baino lehen. Bazkari egunean San Martin plazan elkartuko dira, 12:00etan.

Bestalde, 1987an jaiotako neskek eta mutilek bazkaria iragari dute Gabonetarako, abenduaren 24rako. Izenematea Matxiategi tabernan (Matxiategi 12) egin daiteke, azaroaren 24ra arte.

1934an, 1946an, 1944an eta 1962an jaiotako bergararren ospakizunak azaroaren 26an

1934an jaiotakoek (1955eko kintoek) bazkaria egingo dute Sirimiri jatetxean azaroaren 26an. Izenematea Sirimirin, aurrez 12 euro ordainduz; 1946an jaiotakoek Tartufo jatetxean izango dute afaria. Izenematea 943 76 35 51 telefonoan; 1944an jaiotakoek ere afaria egingo dute azaroaren 26an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea 943 76 13 61 (Mari Carmen Garitano) eta 943 76 23 70 (Sanchez) telefonoetan, azaroaren 21era arte; azkenik, 1962an jaiotakoek Errekin afalduko dute. Izenematea Errekin, 10 euro aurreratuz.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

KABIA
ERRETEGIA

Orain astelehenetik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

PILOTA/ Gaztetxoak *barruka* arituko dira eta beste bi partidu izango dira zapatuan

Pilota sailari omenaldia bihar, Udal Pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Bergara KEko pilota saila omentzeko jaialdia izango da bihar arratsaldean Udal Pilotalekuan, 17:30ean. Pilota eskolako arduradunek Oxirondo elkartearen eta Udalaren errekonozimendua jasoko dute biharko jaialdian.

Oxirondo elkartearen ekimenez antolatuko dute biharko jaialdi omenaldia. Herriko pilotariak eta pilota sailaren arduradunak izango ditugu protagonista nagusiak. Jaialdiaren hasieran, benjamin, alebin eta infantil mailako pilotariak *barruka* jokatuko dute.

Horren ondoren, beste bi partidu jokatuko dira: gazte mailan, Aitor Mendizabal antzuolarrak eta Andoni Azkarate oñatiarrak Aitor Atxotegi soralezetarra eta Jon Larrañaga bergararraren aurka neurtuko dituzte indarrak, eta, horrez gainera, senior mailako norgehiagoka izango da Jon Apezetxea-Igor Gutierrez eta Garikoitz Erroizenea-Ruben Zapirain bikoteen artean.



BERRIGARA

Oxirondo elkarteak eta Udalak Bergara KEko pilota saila omentzeko dute bihar.

Esan bezala, jaialdian zehar Bergara KEko pilota saila omentzeko dute Oxirondo elkarteak eta Bergarako Udalak. Hainbat sorpresa izango dira biharko jaialdian. Azken urteotan egindako lan bikaina eskertu nahi izan die pilotako arduradunei. Gaur egun ehunetik gora gaztetxo ari dira pilota eskolan.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA GAUR

Bestalde, gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Lau partidu iragarrita daude. Jaialdiko azken partiduan Beñat Iñarrak Hernaniko ordezkariaren aurka jokatuko du. Finalerako sailkatzeko lehian dabil Beñat.

Debagoieneko I. Spinning Maratoia zapatu arratsaldean Labegaraietan

E.M.

Debagoieneko I. Spinning Maratoia egingo da bihar, zapatua, Bergarako kiroldegian, 16:00etan. Biharko maratoian lau saio egongo dira: Arrasateko E-Goitek kirol enpresako monitorea zuzenduko du lehena; Nuria Rodriguezek eta Amaia Epeldek bigarrena, 17:00etatik 17:50era; hirugarrena Goienasportek eta, azkena, Santi Idogorasek, 19:00etatik 19:50era. Realeko jokalaririk ohiak zuzendutako saioarekin amaituko da maratoia. Labegaraietako kiroldegian spinningeko 80 bizikleta jarriko dituzte bihar.



BERRIGARA

Spinningzaleek 50 minutuko lau saio izango dituzte bihar.

LABUR

Bergara-Hondarribia senior mailako eskubaloia partidua domekan Arrasaten

Zapatuko spinning maratoia dela eta, senior mailako eskubaloia taldeak Arrasaten jokatuko du etxeko partidua. Bergararrek Hondarribia hartuko dute domekan Iturripen, 11:30ean. Bi taldeak sailkapeneko behealdean daude.


Bigarren eskuko eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo dute Pol-Polen

Eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo dute Pol-Polen azaroaren 28tik abenduaren 3ra. Material biketa hurrengo astean hasiko dira egiten.

Interesatuak Pol-Polera eraman beharko dute materiala hilaren 24a baino lehen, astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara eta zapatuetan 18:00etatik 20:00etara.

Denboraldiko azken mendi irteera azaroaren 20an, Pol-Pol eta Gorla Alpinoren eskutik

Pol-Polek eta Gorla Alpinok Lizarrusti-Zaldibia zeharkaldia iragarri dute azaroaren 20rako. Egun guztirako irteera izango da eta denboraldiko azken irteera denez, Zaldibian bazkalduko dute, denboraldia behar bezala agurtzeko. Argibideetarako deitu: 943 76 48 51.



Agorrosingo mini-estadioa zabalik

Europako UEFA futbol erakundeak Bergara KEri oparitutako mini-estadioa jarri dute Agorrosin. Instalazio berriak belar artifiziala dauka eta 21x10 metroko neurriak ditu. Hesi batez inguratuta dago eta, besteak beste, areto futbola, saskibaloia, eskubaloia, boleibola eta bestelako kirolak egin ahal izango dira hantxe. Egunean zehar kirolzaleendako zabalik egongo da mini-estadioa. Oraingoan itxita dago.

EDEL

TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

BERGARA

Margoak

Certificado ISO 9001 por

BQi

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

IGERIKETA / Gaztetxoak dira nagusi: aurre-benjamin, benjamin eta alebin mailetan 48 neska-mutiko dabilta

Igeri Elkartea: 80 igerilari denboraldi berrirako

E.M.

Bergarako Igeri Elkartek ekin dio denboraldi berriari. Aste bukaeran Gipuzkoako Ligako lehen jardunaldia izan zuten Azpeitian. Hala ere, otsaila aldera iritsiko dira denboraldiko zitarik garrantzitsuenak.

Bergara Igeri Elkartean 80 lagun ari dira aurtengo denboraldian: 14 neska-mutiko aurre-benjamin mailan, 25 benjamin mailan, 9 alebin mailan, infantil mailan 12 igerilari, junior mailan (14 eta 15 urtekoak) beste hamabi, senior mailan hiru lagun lehiatuko dira eta, azkenik, master lehiaketatan, 25 urtetik gorakoei zuzendutako probatan, beste bost lagun.

IRAILTIK ENTRENATZEN

Amaia Andueza oñatiarra dugu Igeri Elkarteko entrenatzailea.

Neritzel Albisuak eta Nerea Anduagak gaztetxoekin lagun-duko diote.

Irailean hasi ziren entrenatzen Bergarako igerilekuan. Dagoeneko Gipuzkoako Ligako lehen jardunaldia jokatu dute, joan den aste bukaeran, Azpeitian. Amaia Anduezak zera adierazi digu: "Saso puntua hartzen joateko lehiaketak izaten dira Gipuzkoako Ligakoak. Otsaila aldean eman beharko dugu onena, orduan izaten baitira txapelketarik garrantzitsuenak".

Iazko emaitzei eustea da helburua Amaiaren esanetan: "Joan zen denboraldian ondo ibili ginen. Ea orduko emaitzak hobetzerik dugun..."

Bergarako igerilekuan ari dira entrenatzen. "Taldeen asko gara eta lekuz nahiko justu ibiltzen gara. Hala ere, nahiko ondo moldatzen gara" diosku Amaiak.



Aurreko denboraldian 62 lagun aritu ziren Igeri Elkartean eta aurten, berriz, 80 lagun dira taldean.

IGERI ELKARTEA

Bergarako KEko lau futbol taldek etxeko partiduak izango dituzte

E.M.

Bergara KEko lau futbol taldek etxeko partiduak izango dituzte aste bukaeran. Lehen erregional mailako taldeak Vasconia hartuko du zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Saillapeneko hirugarren tokian dira mahoneroak.

Aurreko zapatuan Elgoibarren 3-0 galdu ondoren, saillapeneko hirugarren postuan da Josu Zubiarren taldea, 16 punturekin, Mundarorekin berdinduta. Aurretik Zumaiako liderra izan da (21 puntu) eta Urola (18) daude. Hasiera baten, partidu erreza dauka Bergarak bihar. Izan ere, Vasconia taldea saillapeneko 12. tokian dago, 7 punturekin.

OHOREZKO MAILAKO GAZTEAK DOMEKAN
Zapatuan beste bi partidu jokatuko dira Ipintzan: infantil mailako taldeak Amaiak Bat har-



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Infantil mailako taldeak Amaiak Bat taldearen aurka jokatuko du zapatu goizean.

tuko du goizeko 10:00etan eta ondoren, bigarren kadete mailako taldeak Lagun Onak taldearen aurka jokatuko du, 11:30ean.

Domekan, berriz, ohorezko gazte mailako gaztearen txanda izango da. Abel Maestrek zuzendutako taldeak Zumaiako izango du bisitari, 11:30ean.

LABUR

Domekan jokatuko den Behobia-Donostia lasterketan 200 bat bergarar izango dira

Behobia-Donostia korrika lasterketa jokatuko da domekan, 11:00etan. 200 bergarar inguruk hartuko dute parte. Partaideek ohiko ibilbidea egin beharko dute, 20 kilometrokoa. Aurtengoa lasterketaren 41. ekitaldia izango da.

Shotokan karate taldeko gaztetxoek emaitza bikainak lortu zituzten Aretxabaletan

Alebin mailan, taldeka, Haizea Iñarra, Jone Agirrezabal, Alazne Murgizu eta Matxalen Zezeaga lehenak izan ziren zapatuan; infantil mailan Pablo Elkoroiribe, Jon Urkia eta Iker Moreno 2.ak izan ziren eta Julen Arana, Mikel Aginagalde eta Markel Lopezek 3. postua lortu zuten; junior mailan Miren Laskurain 3.a izan zen Aretxabaletako txapelketan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ZAPATUAN, KANPOAN

09:30: Mongatxurak-Txakurra. Makanaki
10:30: Teatekh-Makanaki. Mongatxurra

10:30: Pub Irish-Egurre. Belengua

11:30: A Ze Flaxa-Paco Cia. SDTNT

12:30: STNT-Irubide. Paco Cia

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Errotagain-Belengua. Egurre

16:00: Brescia-Komando Piperrak. Guri Guri

17:00: Fit-Guri Guri. Brescia

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

ELKARRIZKETA

AINHOA LOPEZ SORALUZE/MEZZOSOPRANOA

“Kantariontzat sari handia da opera bat hartu eta bi egunean erraztasunez abestea”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bi kontzertu izango dira asteburuan Mariaren Lagundiko elizan, Udazken Kulturala egitasmoaren baitan. Bihar, zapatua, Ainhoa Lopez Errenteriako mezzosopranoak abestuko du; etzi, domekan, berriz, Amaia Arberas soprano donostiarrak jardungo du. Bi emanaldiak 19:00etan hasiko dira. Guk Ainhoa Lopezekin hitz egin dugu emanaldiaz eta bere kantu ibilbideaz.

Nolatan hasi zinen opera kantari?

Betidanik abestu izan dut herriko abesbatzetan; eta Andra Mari abesbatzan Juanito Eraso kantu irakaslea ezagutu nuen eta harekin hasi nintzen ikasten. Ondoren, Bilbon ikastaro batzuk egin nituen eta han Italiako irakasleak ezagutu nituen eta ikasketak jarraitzeko Italiara joateko gomendioa egin zidaten. Mila-nera joan nintzen, eta hantxe nabil lanean.

Euskal Herrian ez ezik, Espainian, Italian eta Frantziaren jardun duzu. Non egin dizute harrerarik onena?

Italian zaila da opera munduan sartzea, bertakoak nahiago dituztelako, baina Italian bizi naitenez hantxe egiten dut lan gehiena, eta ongi hartzen naute. Orain Espainia aldera joan nahi nuke merkatua zabaltzera.

Italian opera munduan sartzea zaila dela diozu. Zuk nola lortu duzu?

Abeslariak agenterik ez badu lanik zailena da bere burua saltzea; entzunaldietara joatea eta lana hautatzaileen gustukoa izatea. Baina ongi jardun eta mugituz gero, batetik edo bestetik beti deitzen dute.

Hainbat opera lan ezagunetan hartu duzu parte, ezta?

Konposatzaile lirikoen erreperitorioa abesten dut batez ere. Gogokoen Rossiniren *Italiana en Argel* dut. Rossini asko gustatze-



GOIENKARIA

*“Rossiniren
‘Italiana en Argel’
operan dudan
papera niretzat
egina dela dirudi”*

az gain, opera lan alaia da eta pertsonaiak nire antz handia duenez, oso gutxi kostatzen zait paper hori jokatzeko; nik abesteko idatzia dagoela dirudi.

Zer behar da opera kantari ona izateko?

Askok ikastea oinarritzeko da, baita norbait aldamenean izatea ere. Kantarion arazoa da guk ez dugula gure ahotsa besteek entzu-

ten duten bezala jasotzen; beraz, kantari batek beti behar du aholkuak emango dizkion norbait.

Sariak ere jaso dituzu.

Kantariontzat saririk handiena da opera bat esku artean hartu eta bi egunean dena ateratzeko erraztasuna izatea. Gai nontzean sari batzuk jaso ditut, Pavian eta San Remon esaterako, baina mezzosopranoontzat lehen sariak eskuratzea zaila da.

Bergarako emanaldian zer entzungo duzu?

Lehen zatian opera abestuko dut; eta omenaldi bat egingo diot Rossiniri. Nire ahotserako egokiak diren bost aria-opera abestuko ditut. Bigarren zatian, berriz, ganbera musika izango da. Garai bereko bi euskal konposatzaile aukeratu ditut horretarako: Maurice Ravel eta Aita Donostia, hain zuzen ere.

*“Bergarako
emanalditik
entzuleak eta ni
gustura irtetea da
nire helburua”*

Hemengo entzuleengandik zer espero duzu?

Bai entzuleak eta baita ni ere gustura geratzea emanaldiaren ostean; ahalik eta saio politena eta lasaiena egitea. Herrietako emanaldietan saiatzen naiz jendearentzat ezagunak izan daitezkeen piezak abesten, eta Bergarakoan ere aukeraketa nire esku utzi dutenez hala egingo dut.

LABUR

Juan Jose Altunaren ikasleen margo lanak kultur etxean

Juan Jose Altuna Akizu margolari bergararraren ikasleek euren lanak ipini dituzte ikusgai kultur etxean. Azaroaren 20ra bitartean egongo dira koadroak ikusgai, eta erakusketa bisitatzeko ordu-tegia honako hau da: asteleheneetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatutan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Guztira, 22 lan izango dira erakusketan. Lan horietan, estilo eta gai asko ikusten dira islatuta, eta eta berean, margolarien maila ere askotarikoa da.

Toribio Jauregiren argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Gaur, egubakoitza, Toribio Jauregi: pilotazale bat kameraren atzean argazki erakusketa zabalduko Aroztegi aretoan, 19:00etan. Pilotazale eta argazkizale amorratua zen Toribio Jauregi, bere garaietan kronista izandakoa. Argazki fondo bikaina utzi du Jauregik; eta fondo horretako 30 argazki izango dira ikusgai asteleheneetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatutan 12:00etatik 14:00etara.

Abenduaren 3ra arte egongo da erakusketa zabalik.


Tourseko San Martin eguna Azkunetan zapatuan

Tourseko San Martin eguna dela eta ospakizunak egingo dituzte Angiozarko Azkunetan auzoan. Bihar, zapatua, antzatuaren omenez meza egingo dute, 12:00etan, aldamenean San Martinen irudia duen ermitan. Meza ostean, auzoan biltzen direnendako hamarretakoa izango dute gertu. Mokadua egiten duten biltzetan auzoko trikitilariak jardungo dute musikarekin eguna alaitzen.




GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

MINGAINARITIRAKA



Beni Perez

MIZPIRUALDE EGOITZAKO LANGILEA

Bederatzi urte daramatza Benik Mizpirualde egoitzan lanean; garbiketa lanetan jarduten du, baina harreman oso estua dauka hango bizilagunekin. Astero etortzen da gurera, Mizpirualdekoen Bonofotoak ekartzera.

Astero etortzen zara Bonofotoak ekartzera; zenbat ekartzen dituzu?

Mizpirualdeko hainbat bizilagunenak ekartzen ditut.

Askotan tokatu zaizue?

Bai, baina badira oraindik bi lagun sekula tokatu ez zaienak; izugarritzko ilusioa egiten die.

Egoitzako lanean, zer gustatzen zaizu gehien?

Eurekin egotea, berba egitea, garai bateko kontuak entzutea eta maitasuna ematea.

Eta gutxien?

Egia esan, dena gustatzen zait; bueno, soldata altuxeagoa banu, hobeto.

Jende nagusiak zer behar ditu?

Maitasun beharra dute, batez ere.

Lan honetan diharduzunetik zer ikasi duzu?

Batetik, euskara pixka bat irakatsi didate edadetuak; horretaz gain, bizitza beste era batera estimatzen ere ikasi dut.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin egotea, paseatzea, familiarekin egotea...

Zerk amorratzen zaitu?

Iristen zaizkigun albiste txarrek.

Egunkarian zer irakurtzen duzu lehendabizi?

Goienkaria irakurtzen dut hasieratik bukaeraraino; erdizka ulertzen dut, baina...

Zela definituko zenuke zeure burua?

Nire lanean perfekzio-zale samarra naiz, sentikorra eta irekia.

Bergaran zer falta dugu?

Gaztetxoek euren zaletasunetarako tokiren bat beharko lukete: marrazketarako, musikarako... Zinema eta igerilekuen beharra ere badugu; ea laster amaitzen dituzten igerilekuak.

Eta Bergarako gauzarik onena?

Bergararrak.

Amets bat?

Beti izan dut Erromara, Vaticanora joateko gogoia. Lehengo Aita Santuak asko erakartzen ninduen; oraingoak, berriz, ez askorik.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

ISABEL VAZQUEZ

48 URTE / GALIZIARRA / 24 URTE DARAMATZA OSINTXUN BIZI IZATEN

“Euskal Herrian dagoen sentimendu abertzalea Galiziara eramango nuke, beharra dago eta”

AINZANE IRIZAR

Coruña hiriburuan bizi zen Isabel, hangoa da. Baina 24 urte daramatza Osintxun bizi izaten. Hain zuzen ere, 24 urte zituen hona etorri zenean.

“Nire buruari aginduta neukan ez nintzela sekula hara soldadutzara egitera joandako mutil batekin maiteminduko, baina horixe gertatu zitzaidan”, gogoratzen du Isabel. Gero bere senarra izango zena Coruñan ezagutu zuen; soldadutza egitera joan zen hara eta maitemindu egin ziren. “Nire lagun batzuen ezaguna zen, eta halaxe elkar ezagutu genuen”. Horrexegatik, hain zuzen ere, etorri zen Isabel Osintxura, maitasunagatik; izan ere, senarra hemengo da. “Hasiera nahiko gogorra egin zitzaidan; hiriburu baten bizi izatera ohituta nengoen ni, eta bat-batean horrelako herri txiki baten ikus-tea neure burua gogorra izan zen”, azaldu digu. “Dena dela, oso ondo hartu ninduten hasieratik, eta gustura sentitu nintzen segituan; gustura ez banintz egongo, ez nuke hemen jarraituko”. Bi seme-alaba dauzka; 20 urteko semea eta 13 urteko alaba, hain zuzen ere.

Etxean lan egin izan du Isabel, lantegietarako piezak-eta egiten. Baita umeak zaintzen ere.

GALIZIA GOGOAN

Osintxuko gallegia esaten diote Isabeli, baina ez da hura galiziar bakarra: “Bi emakume galiziar ezagutzen ditut Osintxun, eta gustatzen zait eurekin berba egitea; hala, galegoa praktikatzan dut”, azaldu digu. Izan ere, galegoz berba egiten zuen Isabel uume-umetatik, aitona-amonekin, eta ez du bere hizkuntza galdu nahi. Euskara ikasteko ahaleginak ere behin baino gehiagotan egin ditu eta zertxobait badaki.

Zeren hutsunea nabaritzen duen galdetuta, zera kontatu digu: “Hango jendearen izaeraren alderdi batena: galiziarrok lasaia-

“Denboraldi batzuk Galizian eta beste batzuk Osintxun bizi izatea da nire ametsa”

goak gara, pazientzia handiagokoak, suabeagoak...”. Itsasoa etxe aurrean edukitzea ere nahiko luke, Coruñan bezala. “Baina hemengo sentimendu abertzalea ere eramango nuke Galiziara”, gaineratu digu.

Urtean hiru egonaldi egiten ditu Galizian, aitarekin: udan, Aste Santuan eta Gabon jaietan.

“Nire ametsa da Galizian etxe bat edukitzea, Osintxun beste

bat, eta, gogoaren arabera, han edo hemen bizi izateko aukera izatea”, diosku Isabel; “Galizian hutsune handia nabaritzen dut, baina han denboraldi luzea egiten dudanean, Osintxuren hutsunea nabaritzen dut”.

Egia esateko, Isabel beti nahi izan du Galiziara bizi izatera itzultzea: “Ez bagara itzuli izan da lan kontuengatik, senarrak lan ona duelako hemen; gainera, senarrari ere asko gustatzen zaio Galizia”, diosku.

Urruti bizi den arren, Isabel oso barruan darama sortetria, eta segituan ohartu gara asko arduratzen dela han gertatzen direnkin: suteak direla, *Prestige* itsasontziarekin gertatu zena dela, egoera politikoa... Kontu horiek guztiak sortu dira izan dugun berriketaldian; bere herriaz benetan arduratzen den seinale.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BONOFOTOA

XVI. mendeko dokumentuen arabera, bidegurutze honi Bidekurutzeta plaza deitzen zitzaion; eta nola erdiko etxeari: Etxeaundi, Goenetxe ala Etxeluzea?



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

CARMEN ERAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Carmen! Galderaren erantzun zuzena: **San Martzial ermitakoa.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Nestle txokolate estafina

150 g-ko bi tableta + 38 g-ko Crunch opari

1,16 €

266 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

OÑATI
Ugastegiko auzotarren otordua

Argazki honek 65 urte inguru ditu eta Ugastegin ateratakoa da. Garai hartan inguru haietan bizi ziren auzotarrak agertzen dira. Ez dakigu seguru hamarretakoa egiten edo bazkaltzen ari diren, baina ikusten da ez daudela batere gaizki, janari, kafe eta guzti.

Joxe Gomezek utzi digu argazkia, eta oker ez badago, hura da argazkian agertzen direnetik oraindik bizirik dagoen bakarra.

Beheko ilaran, makurtuta: M. Irizar, J. L. Letamendi eta F. Jauregi.

Goian, zutik: J. Gomez, P. Arratibel, T. Mugartza, J. Ugarte, T. Ugarte eta L. Maiztegi.

Argazkia: Joxe Gomez



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 11**
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 12**
ZABALA, Barrenkalea 25... 943 76 16 87
- DOMEKA, 13**
ZABALA, Barrenkalea 25... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 14**
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 15**
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 16**
MOZOS, Iparragirre 2... 943 76 12 15
- EGUENA, 17**
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (banda)... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa... 943 76 62 46
- Ertzaintza... 943 53 47 00
- Osasun etxea... 943 76 24 40
- Asepeyo... 943 76 16 83
- Pakea... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua... 943 78 90 77
- Antzuolako medikua... 943 76 62 23
- Odol emaleak... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak... 943 76 51 16

GARRIAOK

- Taxiak... 943 76 13 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa... 943 77 91 32
- Igerilekuak... 943 76 20 51
- Kultura etxea... 943 77 91 58
- Liburutegia... 943 77 91 62
- Kirolegia... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia... 943 76 14 02
- Erregistroa... 943 76 13 15
- Jardun... 943 76 36 61
- Postetxea... 943 76 26 85
- Bedelkar... 943 76 04 68
- Akulu AEK... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia... 943 76 44 53
- Bergarako notarioitza... 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 15:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorailuze aurrean), Matxiategi (Mintegi pildri okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaure, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala (jatebidea).
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaure, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arrutiaga (Koroa), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Telebista asko ikusten duzu egunean? Zer duzu gogokoen?



IBAN MORENO

Gustuko dut telebista ikustea eta gutxi gorabehera egunean ordu bate egoten naiz telebista aurrean. Gehien gustatzen zaidan saioa *Betizu* da, eta bertan ematen dituzten marrazki bizidunak.



MAITANE ARANTZABAL

Hiru orduz ikusten dut telebista, oso gustuko dut eta. Batez ere bazkal ostean ikusten dut, baina gehien gustatzen zaizkidanak marrazki bizidunak dira, *Shin-Chan*-enak eta horiek gauetan ere ikusten ditut.




AITOR GOROSABEL

Telebista ikusten bi ordu inguru ematen ditut, baina *Play Station*-arekin jolastea nahiago dut. Telebistan batez ere filmak eta tele-saioak ikustea gustatzen zait eta horiek aste bukatetan ikusten ditut.



MAIDER URIBE

Gutxi gorabehera ordu bete egiten dut egunean telebistaren aurrean, eta zerbait gustukoagoa badago gehiago. *Los Simpson* marrazki bizidunak ditut gogoko eta horiek eguerdian ematen dituzte.



MARTXEL GARAI

Egunean bi orduz ikusten dut telebista bataz beste; baina asteburu goizetan, batzuetan, denbora gehiago pasatzen dut telebista ikusten. Gehien telesaiok gustatzen zaizkit, *Stuart Little*, esaterako.



EUKENE LABAKA

Ez dut telebista askorik ikusten, egunean orduerdi baino ez; izan ere, ordenagailu aurrean denbora gehiago ematen dut. Telebistan gustukoak *Los Simpson* eta *Vaya semanita* saioak ditut.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ANBULATORIOKO TXANDAK Irakurle batek deitu digu esanez, ambulatorioko txandak sarritan ez dituztela egun batetik besterako tartean ematen. "Egunean ambulatoriora deitu eta martitzenerako eman zidaten txanda eta hori ez da bidezkoa; askotan horretatik jotzen du jendeak larrialdi zerbitzuetara", esan digu. //A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Puntuari bein"



— Nik aura puntuari bein ikusten dot mozkortuta.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“Euskal Herriko egoera ekonomikoaren adierazleak: hazkundera, enplegua... positiboak diren arren industria gainbehera doa eta etorkizunerako oztipoa izango da hori. Jarduera honek, azken hamarkadan, indarra galdu du euskal ekonomia osotasunari erreparatu gero; gainera kroniko bihurtzeko joera hartuko duela dirudi. Gobernuak industria lehenetsi behar luke bere jomugan artean. Lehenetsuneko lantzat hartu eta 1992an eta 1993an, atzeraldi bete, egin zuen bezala ahalegina egitea. Gainera, lan hori ez luke industria sailak bakarrik egin behar; Juan Jose Ibarretxeren kabineteak osotasunean baizik”.
MIGUEL LAZPIUR / Confesbaskeko presidentea
'El Diario Vasco' / 05-11-05

HAUGIROA!

MINIMOA 1°C
Martitzena, 8

MAXIMOA 20°C
Eguaztena, 2

ASTEKO EURIA (l/m²) 39,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	20 °C	15 °C	— l/m ²
Eguena, 3	20 °C	15 °C	17,5 l/m ²
Egubakoitza, 4	13 °C	10 °C	0,7 l/m ²
Zapatua, 5	17 °C	7 °C	— l/m ²
Domeka, 6	19 °C	5 °C	— l/m ²
Astelehena, 7	20 °C	2 °C	— l/m ²
Martitzena, 8	19 °C	1 °C	21,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKINOE/ Iñigo Iñurrategi



Leonardo Boff

J oan dan astian Leonardo Boff euki giñuan gure artian, Arantzazun eta Eskoriatzan. Zinema kirol, politika eta abarretako izarrak agertzen diren periodikuetako portadetan eta radiko tertulianuen ahuetan gehixegi azaldu barik egin zoskun bisittia. *Glamour*-etik urrin, bere umiltasunetik berba egin zoskun teologia, espiritualidade eta ekologixian gaiñian.

Eta hunkittu egin giñuzen, egi sakonak, egi haundixak, egi-egixak hunkitzen gaittuen moduan. Argiz bete zeban gure pentsakeria, gure egikeria, gure mundu xebeze honen aurrian daukagun jarrerria.

Etika berri baten biharraz berba egin zoskun, lur planeta honetan danok elkarrekin bizi ahal izateko bihar dan etikiaz, lurrian eta lurraikin elkarbizitziaz. Elkartasunian, zaintzan eta sensibilidadian oinarritutako etikaren egarria erein/eragin zoskun. Elkartasuna, zaintza eta sensibilidadia

pertsonekin, batez be ahuleneekin, pobrienekin. Eta maila berrian elkartasuna, zaintza eta sensibilidadia bizitzaren expresiño guztiek: landarak, animalixak, hizkuntzak, kulturak, basuak, errekek, erlijijñuak, pentsakerak... Danok osatzen dogulako errealidade bakarra, eta danok daukagulo alkarren biharra.

“Ez dot uste eoe laburrian klase politikua merkatuko ekonomixiaren uztarripetik urtengo danik”

Hori danoiz entzuten gure arteko zenbait agintari politiko be egon zan, eta ez dakit ba zenbateraino eragingo zotsen han entzundakuak. Ojala konfunditzen banaiz, baiña

ez dot uste epe laburrian klase politikua merkatuko ekonomixiaren uztarripetik urtengo danik. Epe luzera bai, hola jarraituta sortuko dogun egoera jasaneziñakin beste aukerarik ez dabelako eukiko. Baiña bittartian 1.600 milloei pertsonak beste 5.000 milloiren kontura bizitzen jarraituko dogu. Eta falta egitten daben (doskuen?) arbola, ur, lur, eta beste hainbat gauzaren kontura. Itxu.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11 / 264. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Datorren urterako ordenantza fiskal berriak onartu ditu udalbatzarrak

AINTZANE IRIZAR

Zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak aldatzea onartu zuen aurreko astean udalbatzarrak. Horrela, 2006. urtean, zaborraren tasa, esaterako, %17,62 igoko dute, Mankomunitateak halaxe erabakita; etxe bakoitzeko 60 euro ordaindu beharko dugu.

Zerga eta tasa ia guztiak aldatuko dituzte eta igoeraren bat aplikatuko zaie, udalbatzarrak hala xe erabakita, 2006. urterako. Guztiak banan-banan aztertzea ezinezkoa denez, aipagarrienak azalduko ditugu jarraian.

ALDAKETAK ZERGETAN

Zergei dagokienez, honako aldaketak izango ditugu. Ondasun higiezinaren gaineko zergarekin hasiko gara: industriarako ez diren ondasunen kasuan, 2005eko tipoa %0,185 zen; 2006an izango da %0,190. Landa-lurrean dauden ondasunen tipoa ez da igoko.

Ibilgailuen zergei dagokienez, honakoa izan da erabakia: 14 zaldi fiskalera arteko ibilgailuen kasuan, %2,8 igoko dira zergak. Potentzia handiagoko ibilgailuen kasuan, gehiago igoko dira.



Udalbatzarrak hartu zuen erabakia, EAJ-EAko zinegotzien aldeko botoekin; Gertu Gaekoak aurka azaldu ziren.

TASETAN ERE ALDAKETAK

Batetik, zabor bilketa eta errausketa zerbitzuari dagokion tasa daukagu; Mankomunitateak hartzen du horren gaineko erabakia: 2006. urterako, igoera izango da %17,6, eta etxebizitza bakoitzak urtean 60 euro ordaindu behar-

ko ditu. Aurten 51 euro ordaindu dugu zerbitzu horregatik. Gainerako tasa gehienek aurrez ikusten duten Kontsumo Prezioaren Indizearen arabera igoera izango dute: %3,6, hain justu. Tasa horietako batzuk dira honakoak: agiriak luzatzeagatik

ordaindu beharreko hainbat tasatan; negozioak zabaltzeko baimenak emateagatik; taxi lizentziagatik; hirigintza baimenak emateagatik; etxez etxe-ko zerbitzuagatik; frontoia erabiltzeagatik. Horiek guztiak dira aldaketetako batzuk.

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain • Langilea

Ekvadorrekin maiteminduta

U da honetan Ekuadorren pasatu dut hilabete nire familiarekin eta barnerratu ditudan irakaskuntza batzuk ezagutzera eman nahi ditut: Antzuola ez dela munduaren zilborra, ezta Euskadi ere, munduan makina bat modu eta forma diferentetan bizi den jende mirezgarria dagoela. (Ekvadorrek multikulturalitate oso aberatsa dauka). Hango jendeak bihotza ukituta laga dit!

Benetan aberasgarria izan da eguneroko bizimodua beraiekin partekatzeak aukera eduki izana: bai dominika mojen lau komunitatetan, baita

Loja hiriko umezurtz-etxe bateko 12-18 urte bitarteko neskekin ere; zelako goxotasunarekin tratatu gintuzten eta zela maite gintuzten.

Zelako quintasan eta umiltasunarekin bizi diren gizatalde asko! Erakutsiaz eurontzako garrantzitsuena ez dela edukitzea, bizitzea baizik. Pareta baten irakurri nuen: " Las cosas merecen de



"Eurontzako garrantzitsuena ez da edukitzea, bizitzea baizik"

inflexio puntua izan dela gizartearen ikuspegi kolektibo bultzatzeko, beste ikuspegi

nosotros un cuidado, sobre todo cuando sabemos que no alcanzan a todos". Denbora balioztatzen ere ikasi dugu, lasaitasuna, sosegua...

Bestalde, harro daude urte honetako apirilaren 19an eta 20an egin zituzten mobilizazioekin, ziur daude

kontsumista eta indibidualistari aurre eginez. Herria bizirik dago!

Bada oso modu positiboan harritu nauen beste gauza bat ere: herritar askok (kalean topatu izan ditugunak: autobusetako saltzaileak, kaleko eskaleak, etab...) oratoriarako duen erraztasuna izan da. Zergatik ote? Denak ikasgai ederrak benetan!

Amazonian ipini ziguten lepoko apaingarri bat kendu ezinda darabilt, izan ere, sentitzen dut maitasuna eta esker ona suspertzen dizkidala eta baita... hara bueltatzeko tiradizoa egiten didala ere.

LABUR

Ibarre auzoko urbanizazio lanak esleitu dituzte

Aurreko asteko egubakoitzean, azaroko osoko bilkuran, udalbatzarrak erabaki zuten Ibarre auzoa urbanizatzeko lanak Construcciones Pera enpresari esleitzea, 118.235 euroko aurrekontuarekin. Lanak lehiaketara aurkeztu zituztenetik, bi enpresa aurkeztu ziren, Construcciones Pera eta Asfaltos Provisa. Horrenbestez, laster hasiko dira lanekin.

Erretiratuen loteria salgai datorren astean

Erretiratuen elkarteak salgai jarriko du Gabonetako loteria, datorren astean. Eguazteenan eta eguenean, hilak 16 eta 17, egongo dira zuzendaritzako batzordeko kideak Zurragi plazako lokalean, loteria-ko txartelak saltzen; 18:00etatik 19:00etara egongo da horretarako aukera eta 5 euroren truke salduko dituzte txartelak. Ia, bada, zortea duten eta diru pixka bat banatzen duten herritarren artean.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 12
16:00: Antzuola-Sport. Herrera (Gazt.)

PILOTA

Azaroak 12 (Gipuzkoako Txap.)
19:30: Olalde-Aurrera Saiaz (Nagusiak)
Ondoren: Olalde-Gazteleku (Paletaz)

EMAITZAK

FUTBOLA

Urki 2 Antzuola 5 (Erregionalak)
Intxurre 2 Antzuola 1 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Aloña Mendi-Olalde (Infant)... 15-18
Olalde-Anaitasuna (Gazteak)... 22-10
Olalde-Beloki (Nagusiak)... 7-22

PILOTA

Herriko Pilota Txapelketan 13 bikotek jardungo dute, bihartik

AINTZANE IRIZAR

Bihar, zapatua, hasiko dute Olalde elkarteak antolatutako Herriko Eskuz Binakako Pilota Txapelketa. Hamahiru bikotek eman dute izena aurten, eta hiru taldetan jokatu dute txapelketa. Abenduaren 17an finalerdiak jokatu dituzte eta hilaren 23an finala.

Bihar, zapatua, jokatu dituzte pilota txapelketako lehendabiziko partidua. Lau partidua ikusteko aukera izango dugu, 09:15ean hasita.

Hamahiru bikotek eman dute izena aurten, eta hiru taldetan antolatu dute ligaxka. A taldean lau bikotek, B taldean beste lauk eta D taldean bost bikotek jardungo dute. A eta B taldeetatik bikote bana eta D taldetik bi bikote sailkatuko dira finalerdiarako. Abenduaren 17an jokatu dituzte finalerdiak; finala, berriz, abenduaren 23an izango da.

HAMAHIRU BIKOTEAK

Hona hemen hamahiru bikoteak, taldeka; A taldean: Jose Mari Iturbe eta Jose Mari Mendizabal; Juan Simon Aristi eta Jose

Manuel Aranburu; Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai; Jon Arregi eta Eneko Zabaleta. B taldean honako bikoteek jardungo dute: Mikel Saralegik eta Josu Agirrezabalek; Erik Lizarralde eta Joseba Azkaratek; Joseba Lezetak eta Juanjo Aranburuk eta Aitor Aranguren eta Felix Agirrek. D taldean, azkenik, bost bikoteek ditugu: Andoitz Aranburu eta Iker Irizar; Luis Larrea eta Jon Aranguren; Mikel Urtzelai eta J. Agirrebeitia; Mikel Mugurutz eta Migel Mari Jaurerri eta Patri Bideluze eta Andoni Balerdi.



Argazkilari onenei sariak

Aurreko asteko domekan banatu zituzten Udalak antolatutako argazki lehiaketako sariak. Lehenengo mailan, Itsaso Garmendiak jaso du aipamen berezia; bigarren mailan, Oier Peñagarikanok jaso du lehen saria eta hirugarrenean, Iñigo Alonsok. Argazki digitalen mailan, azkenik, Iñaki Garciaren argazkia saritu dute herritarrek. Horra hor argazkian irabazleetakoz batzuk./A.I.

LABUR

Neguko film emanaldiak gaur, egubakoitza, gauean hasiko dituzte, zine-forum batekin

Emanaldi berezi batekin hasiko dituzte neguko film emanaldiak; aurrekoan azaltzen genizuen moduan, droga mendekotasunaren prebentziorako kanpainaren barruan, 16 urtetik gorako gazteen-dako zine-foruma antolatu dute. *Diario de un rebelde* filma ikusiko dute, 21:30ean, Olaran etxean, eta ondoren haren gainean berba egingo dute. Domekan, berriz, 16:30ean, *Harry Potter* filma euskaraz ikusteko aukera izango da.

Gertu Gae plataformak berriro aurkeztu du 'apartheid' politikoaren aurkako mozioa

Honako eskaerak egin zituen Gertu Gaek aurkeztutako mozioan: herritar guztiak bizitza politikoan parte hartzeko duen eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatu zion Udalari; bake eta demokrazia egoera batera eramango gaituen prozesua bultzatzeko Udaletik egin daitekeen ekarpen onena *apartheida* gainditzeko neurriak hartzea dela esan zuten. Mozio hori ez zuen onartu udalbatzarrek.

PSE-EEK hiltegiaren gaineko mozioa aurkeztu zuen eta atzera bota zuten

Hiltegiaren gaineko mozio bat aurkeztu zuen, batetik, PSE-EEK; mozio horretan eskatzen zuten hiltegiaren kudeaketa plana egitea; bestalde, gerente independente bat kontratatzea; beharrezko inbertsioak egitea eta inbertsio plan bat egitea; azpikontraten egoera ziurtatzea eta horrela zerbitzuaren jarraipena gutxienez 5 urtean ziurtatzea. Eskaera horiek egiten zituen, besteak beste. Atzera bota zuten mozioa; Gertu Gaek aldeko botoa eman zuen.

Etkez etxeko zerbitzua Aldundiarekin hitzartzea onartu berri du Udalak

Udalak onartu egin du Foru Aldundiarekin etkez etxeko zerbitzuaren gaineko hitzarmena sinatzea. Hitzarmenaren helburua da pertsona nagusi ezinduekako herri bakoitzari etkez etxeko zerbitzuan dagozkion orduak zehaztea, Aldundiak Udalari zerbitzu horren truke ordainduko diona zehaztea eta Gipuzkoa osorako etkez etxeko zerbitzurako araudi bateratua onartzea, bederatzi hilabeteko epean. 2001. urtean Gizarte Zerbitzuen ardura banaketa egin zuten, eta ordutik, etkez etxeko laguntza Udalen ardura da; pertsona nagusi ezinduen ardura, berriz, Diputazioarena.

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11 / 246. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


Aguirre y Aranzabal armagintzako lantegi aitzindaria aurki eraitsiko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Herrirako sarreran, ezkerrean dagoen fabrika zaharra aurki botako dute. Garai batean eskopeta fabrika izandakoa, ondoren Udalaren biltegi ere izan zen. Elgetako industriaren gune bat aurki eraitsiko dute, eta Torrealdeko etxeak egingo dituzte hantxe.

Elgetako industria mugimenduan garrantzia izan zuen Eibarko armagintza enprekin izandako harremanak. Elgetako gazte asko Eibarrera joan zen XIX. mendean bukaeran lanbide bat ikasteko, eta armagintzaren sektorean nabarmentzen hasi ziren laster. Horietako gazte batek, Udariaga baserrian jaiotako Nikolas Arantzabalek, Agirrerekin batera eskualdeko armagintza sektoreko enpresa garrantzitsuenetakoa izango zenaren zimenduak osatu zituen.

Aguirre y Aranzabal (AYA) Elgetako lantegia 1952an zabaldu zuten, eta ondoren, 1975ean elkarre anonimo bihurtu zen. Fabrikari 15 langilek jardun zuten urte haietan eskopetak egiten, 1985ean lantegiak atek itxi zituen arte.



Aguirre y Aranzabal lantegiak atek itxi ostean, Udalak biltoki moduan erabili du eraikina.

EIBARKO LANTEGIA

Aguirre y Aranzabal lantegi nagusia Eibarren zegoen eta garai hartan 400 langile inguru izatera iritsi zela esan digute.

Gaur egun, AYA izenpean eskopetak egiten jarraitzen duten arren, enpresa beste jabe batzuen esku dago. Eibarren du egoitza, Otaola ibilbidean.

ARMAGINTZA ELGETAN

Aguirre y Aranzabal lantegia aitzindari izan bazen ere, armagintzak izan du bere lekua Elgetan. Gaur egun oraindik Zabala

AYA fabrikak 1985ean itxi zituen atek, baina oraindik bada arma lantegirik herrian

Hermanos enpresak eskopetak egiten ditu eta familiarreko beste bi enpresa txiki ere badira armagintzan jarduten dutenak. Aguirre y Aranzabal enpresak Elgetako lantegia utzi zuenean eraikina enkantera atera zuten eta 1991. urte hasieran Udalaren esku gelditu zen.

Udalak biltegi moduan erabili du hainbat urtean AYA eraikina, eta hango solairuren bat alokatuta ere izan dute beste jarduera batzuetarako. Pinak egiten dituen enpresa bateko langileek jardun zuten hantxe denboraldi batez; gaur egun, Pagatzako industrialdean dute lantegia.

Orain hutsik dago AYA lantegi zaharra eta aurki eraistekotan dira, Torrealdeko urbanizazio lanei urtea amaitu aurretik ekingo dietela esan baitute.

HERRITARREN HITZA / Geaxi Ezpeleta • Ikaslea

Zigorra baino gehiago

Hiru, bi, bat, heldu da eguna! Hainbat eta hainbat Euskal Herritarrek itxaroten duten egun hori. Autoa hartu, barrua kemenez bete eta bideari ekitekoa. Urrunean irribarre baten gose diren horienganako bide luzea. Kilometro ugari eginak eta beste asko egitekoak, gehiegi.

Urrunean, bestalde, zain dagoenaren egonezina. Beldurra eta poza bihotzean borborka. Bisita jasotzearen poza, bideak suposatzen duen arriskuarekiko beldurra. Bakardadean itxaron ostean, inguruko gertutasunak suposatzen duen poza. Berriz

bakardadean itxaron beharrak barruan zabaltzen duen beldurra.

Egoera latza. Sasiz eta arantzaz betetako bidea. Denentzat jasangaitza, batzuentzat jasan ezina.

Urruntasunak, ziega hotzaren oihartzunak, jasan beharreko irainak, zigor batetik haratago doazen egoerak dira.

Ingurukoak heriotzaren errepidera behartzen dituen



“Ez gara politikaz hitz egiten ari, eskubideez hitz egiten ari gara”

zigorra, presoak etsipenera bultzatzen dituen zigorra. Gobernuek norbanakoen eskubideak urratuz inposatzen duten zigorra. Alderdi politiko gehienei esker ezartzen jarraitzen den zigorra.

Errepidean nahiz herritik kanpo urruneko ziega bakartian

bizia galdu dutenendako zigor hutsa baino askoz gehiago, heriotza zigorra.

Euskal Herriak jasaten duen errepresioaren adar gogorretako bat dira espetxe politika eta dispersioa. Legeak dioena urratuz inposatzen den egoera.

Ez gara politikaz hitz egiten ari, eskubideez hitz egiten ari gara. Presoen eskubideez, presoengurukoaren eskubideez, herri bati herri izan nahiagatik urratzen zaizkion eskubideez. Bermatuak egon beharko luketen eta ez dauden giza eskubideez. Agintariek, boteredunek bermatu beharko lituzketen eta horren ordez urratzen dituzten eskubideez.

LABUR

Edurne Pasabanen diapositiba saioa, bertan behera

Azaroaren 17rako Udalak eta Kutxak elkarlanean antolatutako diapositiba emanaldi bertan behera geratu dela esan digute udaletxean. Edurne Pasabanek *Emakumea eta K2* izenburupean egin behar zuten saioa zen, hain zuzen ere. Horren ordez beste mendiko diapositiba emanaldi bat antolatu dute abenduaren 1erako. Alberto Inurategik *Gure Himalaya* diapositiba saioa eskainiko du; eta baita mendian pasatako gorabeherak kontatu ere.

KULTURA

Zeramika eta margo erakusketa Espaloian hilaren 27ra arte

I.A. Kulturarekin bi hitzordu dituzte asteburuan elgetarrek Espaloian. Gaur, barikua, Zanguango taldearen antzezlanaz izango da. Bihartik aurrera, bestalde, erakusketa berri bat izango da ikusgai kafe antzokian Jennifer Alvaradoren zeramika eta margo lanekin.

Zanguango konpainiak irekiko du Espaloiko asteburua Max antzerki saria irabazi duen *Pan con pan* lanarekin. Ikuskizuna gaur, barikua, izango da 22:30ean. Sarrerek 12 euro balio dute, bazkideendako, berriz, 10 euro.


Bestalde, bihar, zapatua erakusketa berri bat ipiniko dute ikusgai Espaloian. Arte Ederretan lizentziatu berri den Jennifer Alvarado durangarraren zera-

mika eta margo lanak azaroaren 27ra arte egongo dira bertan.

MARGO TEKNIKA ANITZAK
Zeramika lanak buztin gorritz eta toskaz eginikoak dira; 2004an Getxo Arteko erakusketan ikusgai ipinitakoak. Margoak, berriz, teknika desberdinak nahastuz eginak. Orain arte talde erakusketetan hartu du parte artista honek, baina honakoa bakarkako erakusketa izango du. Aste barruan Espaloira joaten diren guztiek ikusi ahal izango dituzte arte lan hauek.

Domekan, familiarendako zinema saioa izango da. 17:30ean *Los increíbles* marrazki bizidun filma emango dute.

Astean, nagusiendako zinema emanaldiek hartuko diete lekukoa asteburuko saioei. Eguaztenean, hilaren 16an, *Vias*



Mi huerto Alvaradoren lana.

GOIBEKOKALE.

cruzadas filma amerikarra emango dute. Film honek hiru pertsonen tren geltoki batean duten harremana kontatuko du.

UDALAREN WEBGUNEA

Webguneak 65.265 bisita urtebetean

I.A. Atzo, azaroak 11, bete ziren hiru urte Elgetako Udalak webgune berritua aurkeztu zuenetik. Goienak kudeatzen du eta besteak beste herriko berriak eta herria bera sare bidez zabaltzea du helburu, azken urtean webguneak 65.000 bisitatik gora jaso ditu.

Elgetako Udalaren webgune berritua 2002ko azaroaren 10ean abian jarri zutenetik, urtetik urtera gero eta bisita gehiago izan ditu. Lehen urtean 27.200 bisita jaso bazituen, joan zen azarotik hona jasotakoak 65.266 izan dira.

Goienako telematika sailak kudeatzen du webgune hau Udalarekin elkarlanean eta bertatik esan digutenez, "albisteak eta agenda kontsultatzen ditu jen-

deak batez ere; herria eta turismoa atalek ere pizten dute jendearen interesa".

MAIATZEAN ORRI GEHIEN
Egunean bataz beste 191 bisita izaten ditu Elgetako Udalaren webguneak eta gehienek orri bat baino gehiago bisitatzen dute bertan. Horren adierazgarri dira datuak: Bisitak 65.266 izan badira ere ikusitako orriak 181.680 dira.

Bisita gehien apirillean jasotzen dituzten webguneak, 6.436, hain zuzen ere. Jendeak Elgetako webgunean orri gehien ikusi duen hilabetea, berriz, maiatza da. Bali-teke arrazoa izatea hilabete honetan futbito txapelketako emaitzak bertan ipini izana.

Hemendik aurrera ere Elgetako berriak jaso nahi dituztenek www.elgeta.org helbidean horretarako aukera edukiko dute.



Besaidera joan ziren mendi bizikletan 18 elgetar

Kirola Sustatzeko Taldeak antolatuta mendi bizikleta ibilaldia izan zen domekan. 18 lagunek hartu zuten parte eta proposatutako bi ibilbideen artean laburrena aukeratu zuten: Elgeta-Berrio auzoa-Elorrio-Besaide-Kanpantzar-Elgeta. Bestalde, Kirola Sustatzeko Taldeak azaroaren 20rako eskola-umeendako eta euren familiendako irteera laburra antolatzen dihardu. Gatzaga aldera izango da seguru aski, baina zehaztasunak aurrerago emango dituzte./I.A.

LABUR

Azaroaren 16tik aurrera Bolatoki taberna, sauna eta squasha itxita egongo dira

Datorren azaroaren 16an itxiko ditu atek Bolatoki tabernak, beraz, ordutik aurrera ez da taberna eta jatetxe zerbitzurik egongo kiroldegian. Taberna itxteaz bat sauna eta squash pista ere ezin izango dira erabili. Hala ere, Udal Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen ikastaroak (sasoian egoteko gimnasia, erretiratuendako gimnasia, tai-chi, aerobik eta eskola kirola) kiroldegiko gimnasioan egiten jarraituko dute, irakasleek zabaldu eta itxiko baitituzte instalazioak. Udalaren asmoa da kirol instalazio guztiak lehenbailehen berriz irekitzea.

Baserrietako postontziak datorren urtean tokiz aldatzeko proposamena egingo dute

Baserritarrek udaletxe azpiko postontzietan jasotzen dituzte orain gutunak. Astelehenean izandako Baserritarren batzordeko bileran, ordea, adostu zuten datorren urteko aurrekontuei begira proposamen bat aurkeztea postontziak lekuz aldatzeko. "Udaletxe azpiko postontziak oso egoera kaskarrean daude; gainera, neska-mutikoak jolasean ibiltzen dira eta sarritan gutunak lurrean aurkitu izan ditugu", esan digu batzordeko kide batek.

Euren asmoa da, datorren urtean, Udalaren biltokia berritzeko lanak egiten dituztenean, gune bat eskatzea baserrietako postontziak ipintzeko. "Baserritar bakoitzak bere postontzia eta giltza izango lituzke nahi dutenean gutunak jasotzeko", esan digu. Orain aztertu behar dute nolako postontziak ipini ditzaketen.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505

zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZa

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) i KODEA

<p>Himnoak Elbarri EIBAR Athletic Club i BILBAO Osasuna i OSASUNA Real i REAL</p> <p>Pop-Rock Aitormena (Hertzainak) i AITORMENA Aizkolari (Kortatu) i AIZKO Amore amore (Kariadoko bertsu) i AMORE Bi Minutuetan (Hertzainak) i BIMINU Dub manifest (Fermín Muguruza) i DUB Egunero (Hertzainak) i EGUNERO EH Sukarra (EH Sukarra) i SUKAR Eos dicen mi vida, nosotros amen (La Polla) i ELLOS Enamorado de la muerte (Pepi) i ENAMO Etorkizuna (Euzkadi) i ETORKI Ezer ez da batiko (Ken7) i EZER Gora Herria (Nego Goriak) i GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bida Ertean) i BELAIR Haizea (Ken7) i HAIZEA Hegal egiten (Itzi) i HEGAL Ikusi (Delirium Tremens) i IKUSI Ilargia (Ken7) i KEN Inpernuen ate joka (Gatso) i INPER Jokin Uraini Hitzak (Bida Ertean) i JOKIN Kaixo (Juri) i KAIXO Lau Teilatuta (Itzi) i ITOIZLAU Laztana (Laztan) i LAZTA Lotuta egon arren (Kokain) i LOTUTA Loretxoa (Euzkadi) i LOREA Marea Gora (Itzi) i MAREA Musturrek sartunde (Euzkadi) i MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) i NICA No time for love (Hertzainak) i NOTIME Salve (La Polla) i SALVE Sari Sarii (Kortatu) i SARRI</p>	<p>Sorginen leizean (Euzkadi) i SORGIN Txabro (Zarama) i TXATXOI Txus (La Polla) i TXUS</p> <p>Trikitixa Bexamela ta pastela (Maika ta Isari) i BEXAMELA Bokespok (Kopa Junkera) i BOKESPOK Hik lan eta nik jai (Tapi) i HIK Itsas ontzi baten (Kaxiano) i ITSAS Kupela (Espelde eta Larrañaga) i KUPELA Mila galdera (Aizte / Mader) i MILA Nirekin (Gozategi) i GOZATEGI Ny Hirahira (Kopa Junkera) i HIRA Txanpon baten truke (Aizte / Mader) i TXANPON</p> <p>Folk Arratsalde honetan (Sorotan Bala) i SOROTAN Bai euskarari (Pantxo) i BAI Bakezaleak (Aizte Duhalde) i BAKE Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) i BIZKAIA</p>	<p>Eparrak (Aizte Duhalde) i EPERRAK Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) i EUSKAL Euskaldun barmaren balada (Oskorri) i EUSKALDUN Ez da posible (Pepi) i POSIBLE Furra Furra (Oskorri) i FURRA Galiziar noa (Oskorri) i GALIZIARA Gemikako Arbola (Sorotan Bala) i GERNIKA Haika Muti (Mikel Laboa) i HAIKA Izarren hautsa (Dabier Lata) i IZARREN Leipoan hartu ta (Pantxo/Pepi) i LEPOAN Mairnelaren zai (Sorotan Bala) i MARINE Nere herriko neska baxa maite (B.Larrosa) i NERE Non geratzen den denboraz (Mikel Urdangarai) i NON Dil Ama Euskal Herria (B.Larrosa) i OIAMA Tirakoi (Oskorri) i TIRA Txabamabalinabatu (Mikel Urdangarai) i TXATXA Txoria txori (Mikel Laboa) i TXORIA Zaindu maite duzun hori (Pepi) i ZAINDU</p>
--	---	--	---

LOGOAK (sms 1)

LAU1	LAU3
NUKLEAR	LORA
SORGIN	ARRANO

JOKOAK (4 sms)

SUDOKU	BARONROJO
BOINK	RALLYDELUXE
FUTVOLEY	SOBALL

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALINTZAK:** Edukiak eskuratzeke, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta ko jaitziera bekaik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea ditzan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11 / 27. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Gaztetxea bota arren aurrera egingo dutela diote Gazte Asanbladako kideek

OIHANA ELORTZA

Martitzen goizean bota zuten gaztetxea. Gobernu Batzordeak emandako arrazoiaren artean, segurtasun baldintza eza eta lokala erabiltzeko baimenik ez izatea daude. Gazteek gaztetxea eskatzen jarraitzen dute eta ekitaldiekin aurrera egingo dutela diote.

Gaztetxea bota dutela beste behin salatzen, kontzentrazioa deitu zuten eguazten eguerdirako plazan. Bezperako manifestazioan erabiltzeko lema bera zuten orduan ere gazteek: *Gaztetxea bota duzue baina ametsak zutik dirau.* Eguerdiko hamabietatik ordu bietara geldialdia egin zuten hainbat ikastetxetan eta deialdiarekin bat egin zuten gazte ugari bildu ziren plazan. *Ez gaituzue isilduko, herri bat gaztetxe bat edo non dago gaztetxea?* oihukatu zuten euripean. Udaletxeko sarrean, gaztetxearen eraikinaren hondarrak eta hainbat aulki ikusi zitezkeen berriz ere. Arratsaldean, 100 gazte inguru bildu ziren merkatu plazan egindako asanbladan. Prentsaurrekoa deitu dute zapaturako.

Martitzen goizean sartu ziren hondeatzeko makinak gaztetxera. Inor ez zegoen momentu hartan barruan baina albistea zabaldu ahala gazteak gaztetxean biltzen hasi ziren. Eguerdian gaztetxea zeneko eraikinaren hondar batzuk eraman zituzten udaletxe sarreraraino eta ertzainak gerturatu ziren plazara.

MOBILIZAZIOAK

Gaztetxea bota zutela salatzen, manifestazioa deitu zuten gazteek martitzen iluntzerako. Istiluak egon ziren.

Zazpitan abiatu zuten manifestazioa. Plazan sartu zirenean arrautzak bota zituzten gazte batzuk udaletxearen aurka eta atzeko kaletik gora joan ziren gaztetxearen alde manifestatzen. Erdiko kaletik behera etorri zirenean, ordea, ertzainak zituzten zain plazan. Arrautzak jaurti zituzten berriro gazteek udaletxearen aurka eta ertzainek gomazko pilotak bota zituzten



Eguazten eguerdian kontzentrazioa egin zuten gazteek plazan, manifestazioan erabili zuten lelo berdinarekin.

metro gutxitara zeuden manifestariak sakabanatzeko.

Herriko kale batzuk zeharkatu ostean, plazan eta inguruan

bildu ziren 150 bat lagun. Gaztetxearen aldeko eta Udalaren eta alkatearen aurkako oihuak egin zituzten. Zutitu zirenean ertzainak

inguratzen hasi zitzairen eta korrika alde egin zuten. Orduan bota zituzten bigarren aldiz pilotak ertzainek. Gazteek harriak

Bi hilabete pasatxo iraun ditu gaztetxeak

Uztaila bukaeran okupatu zuten herriko hainbat gazte Casablanca auzoko eraikina. Abuztuan zehar hainbat konponketa eta berritze lan egin zituzten eta irailaren hasieran antolatu zuten bertan gaztetxearen irekiera kontzertua. Irailaren 3an, alkate dekretu batek 48 ordu eman zien okupazioarekin amaitzeko.

Bi hilabete pasatxo egon da zabalik Oñatiko gaztetxea eta tarte horretan hainbat bilera ere egin dituzte Gazte Asanbladako eta Udaleko kideek. Joan den martitzen goizean hondeatzeko makinak sartu ziren eta eguerdia heldu baino lehen bota zuten gaztetxea behera. Orduan ez zen arazorik egon baina izan dira istiluak harrez gero.



Horrelaxe gelditu da gaztetxea zena.

Gaztetxea bota dutela salatzen hainbat mobilizazio egin dituzte egun hauetan

Gaztetxea botatzeko izan dituen arrazoiak azaldu ditu Udalak ohar batean

erantzun zieten. Gaueko bederrazi eta erdian ertzainak zeuden oraindik plazan. Plazan zegoen jendea behin baino gehiagotan joan zen ertzainengana pilota gehiago ez botatzeko eskatzen.

GOBERNU BATZORDEAREN OHARRA

Gaztetxea bota zuten egun berean, martitzena, prentsa oharra bidali zuen Gobernu Batzordeak. Prentsa oharra dio, gaztetxea botatzeko aginduaren arrazoiak hiru hauek izan direla, batez ere: lokalak gutxieneko segurtasun baldintzak ez betetzea, erabilerarako inongo baimenik eskatu ez izana eta inoren gain beharko luketen erantzukizunak eraikin publiko horretan Udalak bere egiterik nahi ez izatea.

Arrazoiak gain, gobernu batzordeko oharra dio duela bi urte erabakitakoari jarraituz bota dutela gaztetxea, eraikinaren egituraren azterlanak agerian utzi zuelako hondamendi egoerak arriskuak sortu ditzakeela pertsonendako. Horrez gain dio, ez dutela lehenago bota ez apurtze arren gazteekin izan dituzten zortzi bileretan abiatutako prozesua. Hala ere, eraikina bota egingo zutela hasieratik esan zuela gogora arazten die Udalak. Gaztelekuan apustua eginda duela dio Udalak eta aurrerantzean ere atekak zabalik izango dituela herriko nahiak entzun eta aurkitzeko.

Etxerako ederrena, Zanguitun

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4 BERGARA • Tel.: 943 76 08 69

- **Alfonbrak**
- **Alfonbrak neurrira**
- **Funda nordikoak**
- **Edredoiak**
- **Kortinak**
- **Toailak**
- **Izarak**

ZANGUITU margoak

Irala z/g BERGARA • Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE

Tel.: 943 79 11 71

- **Parquet flotatzailea***
- **Sintasola***
- **Moketak***
- **Paper pintatuak**

* Salmenta eta etxean ipintzea.



2000 etxe jabeek errentan eman dute euren etxebizitza hutsa Eusko Jaurlaritzako BIZIGUNE programaren bitartez.

Eman errentan zure etxea beldurrik gabe !

Eusko Jaurlaritzako Visesa arduratzen da gestio osoaz: zuri ordaindu, 5 urte barru etxea hasierako egoeran bueltatu, bizi-lagunak aurkitu... eta ondo ordainduta. Gainera, obrak egiteko 18000 euro arteko dirulaguntza interes gabeko mailegu gisa.

Jo zure udaletxera informazio eske!



suradesalask@telefonica.net
Tel.: 943790645
www.debagoiena.net/suradesa






[BIZIGUNE]



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIAK SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES





PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53